

## Gaztetxoei eta gurasoei inkestak Nafarroako mendialdeko euskararen egoera aztertzeko

SAKANAN, Malerrekan, Baztanen, Bortzirietan eta Iparraldeko Euskara Mankomunitateari dagozkion herrietan, guztira 46tan, egingo dituzte inkestak. 12 eta 16 urte arteko gaztetxoei etxeko erabileraz, sare sozialez, hedabideez eta interneten erabileraz galdetuko diete. Guraso erdaldun eta euskaldunek haien 16 urtetik beherako seme-alabekin duten harremanaz erantzun beharko dute; transmisioaz eta erabileraz arituko dira inkestan. Azterketa lanak bi urte iraungo du.

Aipatu ditugun bailaretako euskara mankomunitateek bi arrazoi aitortu dituzte inkesta egiteko. Batetik, Nafarroako Gobernuak azken mapa soziolinguistikoa ez ditu 5.000 biztanletik beherako herrietako datuak eman eta Nafarroako eremu euskaldunean herri gehienak biztanle kopuru horretatik behera daude. Bestetik, mapa sozio-



Elizondoko Baztan Ikastolako haur, guraso eta irakasleak 18. Korrikan.

linguistikoak euskal hiztunen kopuruaz eta erabileraz emandako datuek kezka sortu dute. Euskara ezagutzen dutenen portzentajeak bi puntu egin du behera hogeitun urtean (%58) eta etxeko erabilerak zazpi puntu (%34).

## Lapurdin beste lau eskola euskara hutsean

MURGILTZE EREDUA hautatu zuten azkeneko bi eskola publikoak Getariakoa eta Larresorokoa izan ziren. 2014ko irailean hasi ziren haiek. 2015eko irailean, beste lau ama eskolatan hasiko dira euskara hutsean; Jatsun, Azkainen, Arbonan eta Donibane Lohizuneko Urdazuriko ama eskolan. Biga Bai eskola publiko elbidunetako guraso elkarteak pozik da euskarazko ereduaren garapena delata. Alabaina, dagoeneko euskaraz irakatsiko duten irakasleak falta dituzte.



Donibane Lohizuneko Urdazuri eskolan (argazkia 2014koa da) euskara hutsean hasiko dira datorren ikasturtean.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Periko, ezinbestekoa

GURE LAGUN ETA KIDE PERIKO SOLABARRIA hil zaigu. Ekonomiaz, gizarteaz eta lanaz hitz egiten duen zutabe honek ondo asko jaso dezake bere barnean Periko moduko pertsona ereduagarria, arlo horietan eta politikan borrokatu zuelako. “Ezinbesteko” deitzen diegun pertsona horietako bat zen, borrokatu zuelako behartsuen, langabetuen, baztertuen, etxegabetuen, preso-en eta erbesteratuen alde. Gazterik apaiztu zen eta Trianon (Zugaztieta, Trapagaran) aritu zen apaiz langile. Bizkaiko meatze guneetan “Santua” moduan ezagutzen zuten, eskuzabala zelako, emankorra, konprometua eta behartsuenei emana. Hau sinatzen duenak ondo daki hori, bere laguna eta bidaidea izan baitzen Meatzaldean eta Ezkerraldean, eta berarekin parte hartu baitzuen makina bat borrokatzen.

Inork baino hobeto jakin zuen borroka politiko, sindikal eta herritarraren alboan egoten, Euskal Herri Langilearen zerbitzura: beti langabetuen eta pentsionisten mobilizazioetan eta etxegabetuen aldeko pro-

testatan; beti energia nuklearraren Lemoizen eta Garoñaren kontra; beti preso-en eskubideen eta autodeterminazioaren aldeko aldarrikapenekin bat eginez. Bizitza umil, doi eta bere ikusmoldearekin koherentea eraman zuen. Klase borroka eta nazio askatasunaren aldekoa batu zituen, subiranotasun nazional, sozial, ekonomiko eta politikoa nahi duen Euskal Herrian. Euskal Herri Langilea kontzeptuak berak –Frankismoan herri mugimenduek eta politikariek hain erabiliak– zerikusi handia du Perikok egindako ekarpen ideologikoekin.

Bertold Brecht poeta alemaniarrak Periko ezagutu izan balu, seguruenik ikusiko luke bere poemetako bat gure lagun Perikoren argazki zehatza dela. Brecht-ek zioen badaudela gizonak bizitza osoan borrokatzen dutenak eta horiek direla “ezinbestekoak”. Halakoxea zen Periko, ezinbestekoa! Eskerrik asko eta ohore.

Juan Mari Arregi